

txintxarri



Aske izan nahi dutenen begietatik

Hilotz metal taldeak bere bigarren iraupen luzeko lana argitaratu du: 'Aske'. Mikel Yarza Artola herritarra da abeslaria eta baxu-jotzailea / 8-9

ARITZ LARREA

Urtebetez Morian

Lesbos uharteko Moria kanpamentuko errefuxiatuekin jarraitzen du Miren Bardaji herritarrak / 6-7

HAPO planaren aurrerapen-dokumentua aurkeztu eta herritarren iritzia jaso dituzte / 3

Lasarte-Oria Trail elkarteak 2. Mendi Festa egingo du irailaren 27an, igandarekin / 10

2^{mó}
graduatu

BLUESTOP
FILTROA
BARNE

99€

2020/9/30era arte baliagarria. Ezin da beste promozio batzuekin metatu.



R.P.S. 17/5/15 I.L.G.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   



Udal ordezkari guztiak batu dira udaletxeko udalbatzar aretoan, iraileko ohiko udalbatzarrean. TXINTXARRI

la ordubetez eztabaidatu dute

Iraileko ohiko udalbatzarra egin dute udal ordezkariak. Lau puntuko gai ordena jarri dute mahai gainean, eta horietako zenbaitetan desadostasunak agertu badituzte ere, ados agertu dira beste batzuetan. EH Bildu eta ELOP-en mozio alternatiboak aurrera egin du

Txintxarri

Lan-baldintzak arautzen dituen markoaren 53. artikulua aldatzeko proposamenarekin ekin diote iraileko ohiko udalbatzarriari. Alderdi bakar batek ere gaiari buruz esatekorik ez zuenez, bozketa egin dute zuzenean eta aho batez onartuta geratu da proposamena.

Lanean kanpoko indarkeriari aurre hartzeko eta aurre egiteko protokoloaren onarpena eztabaidatu dute gero. Zuzenean bozketa egin dute. PSE-EE eta ELOP Elkarrekin Lasarte-Oriako Podemos alderdien aldeko hamar bozkekin, eta EH Bilduren eta EAJ-PNVren zazpi abstentziorekin aurrera egin du proposamen horrek ere.

Bozketaren ostean etorri dira azalpenak. Uxue Loinaz EH Bilduko zinegotziak hartu du hitza eta abstentzioaren zergatia

azaldu du. Protokoloaren beharra "ezinbestekoa eta garrantzitsua" da EH Bildurentzat, baina "zehaztaper maila handiagoa" behar duela iritzi du, eta pautak horiek fintzeko beharra azpimarratu. EH Bilduko ordezkariaren bozka azalpena amaituta, gai ordenako hirugarren puntuari heldu diote; mozio bat ekarri du EAJ-PNVk mahai gainera.

Boris Nogalesek hartu du hitza eta, azaldu du, herriko eskola-erakinen mantentze lanen kudeaketaren karga bolumena oso garrantzitsua dela, eta zaila izaten ari dela garrantzi ekonomiko handiko mantentze-lanak kudeatzea. Horregatik, bi eskaera egin dizkio udal-gobernu taldeari. Lehenengoa, herriko ikastetxeetako zuzendaritza taldeekin eta guraso elkarteekin

batera, ikastetxe bakoitzean behar diren obra handietan lehentasunak ezartzea, eta, urtero gauzatu beharreko lehentasunekin dokumentu bat sortzea. Bigarrenik, udal-aurrekontuetan ezarritako lehentasunen arabera mantentze lanetarako berariazko partidak egokitzea ere galdegin du. Eskaera horiek ez dute aurrera egin. EAJ-PNVren aldeko hiru bozkekin, EH Bildu eta ELOP-en aurkako sei bozkekin eta PSE-EEren zortzi abstentziorekin bere horretan geratu da mozioa.

EAJREN MOZIOAK EZ DU AURRERA EGIN; BAI ORDEA, EH BILDU ETA ELOPEN ALTERNATIBOAK

Jon Martin EH Bilduko ordezkariak hartu du hitza jarraian bozka azalpena egiteko. Esan du EAJ-PNVk aurkeztutako mozioak ez duela urteetan herriko eskola erakinekin gertatutakoa ongi adierazten eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, urteetan ikastetxeetako eraikinetan izandako "utzikeria estaltzeko saiakera bat" dela. Horrela, ELOPekin batera, azken urteetan ikastetxeen eraikinekin gertatutakoa "hobe" islatzen duen mozio alternatiboa aurkeztu du eta hiru eskaera egin dizkiote udal gobernu taldeari.

Lehena, ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza, guraso elkarte eta Hezkuntza Departamentuko ordezkari batekin urtero gauzatu beharreko mantentze lanak eta egiturazko lanak identifikatzea eta horien lehentasuna finkatuko duen dokumentu bat sortzea. Bigarrenik, udal gobernuak udal-aurrekontuetan ezarritako lehentasunen arabera berariazko partidak egokitzea, eta, hirugarrenik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari

ZATARAIN AUZOKO IRISGARRITASUN ARAZOAK EKARRI DITUZTE EAJK ETA EH BILDU ALDERDIEK

egokitzen zaizkion lanak burutzeko, euren aurrekontuetan partidak egokitzea.

Bozketa egin aurretik, proposamen hori entzunda, Nogalesek hartu du hitza berriro eta Hezkuntza Sailak eskaera horri kasurik egingo ez diola esanaz borobildu du bere hitzartzea. Bozketan EH Bilduk eta ELOPek alde bozkatu dute, eta EAJ-PNV eta PSE-EE, berriz, abstentitu egin dira. Hortaz, aldeko sei bozkekin eta 11 abstentziorekin EH Bildu eta ELOP-en eskaerak aurrera egin dute.

Bozka azalpenaren txanda zabaldua, David Mateos Zerbitzuetako zinegotziak hartu du hitza. Beste zenbait gauzen artean, azaldu du ez dagoela garbi ikastetxeen eraikinei dagokionean zein erakundek hartu behar dituen bere gain eraikinetan egin beharreko lanak, eta, horregatik, eskaera bat egin dio Eudeli; bi erakundeekin negoziatuta –Lasarte-Oriako Udalarekin eta Hezkuntza Sailarekin–, argitu dezala zein diren erakunde bakoitzari ikastetxeen eraikinetan egitea dagozkien lanak.

Galdera eta erreguak

EAJ-PNVk bi galdera eta erregu bat zuzendu dizkio udal gobernu taldeari. Jon Antxordokik Zataraingo irisgarritasun arazoan inguruan galdetu du, eta Boris Nogalesek, berriz, eskola kontseilua noiz deituko duten jakin nahi izan du. Bestalde, azken horrek, udaleko pertsonal arazoei aurre hartzeko saiakera egiteko erregua ere egin du.

EH Bilduk ere pare bat gai mahaigaineratu ditu. Baratz ekologikoekin zein asmo duten galdegin du, eta udalbatzarra amaitu aurretik, EAJ-PNVk mahai gainera ekarritako Zataraingo irisgarritasun arazoan gaiarekin ere bat egin du: "Guk argi daukagu, sekulako arazoa dagoela Zatarainen irisgarritasunari dagokionean eta horri konponbidea bilatu behar zaio. Bere garaian proiektu hori bere horretan onartu izanak sortu du gaur egun daukagun arazoa".

Alkateak, banan bana erantzun ditu EAJ-PNV eta EH Bilduren galderak, eta ia 50 minutu pasa eta gero, amaitu egin da iraileko udalbatzarra.



Saio ireki honetan aurrerapen-dokumentuaren puntu garrantzitsuak aurkeztu eta herritarren ekarpenak jaso dituzte. TXINTXARRI

Datozen 15 urteetarako plangintza zehazten

HAPO Hiri Antolamendurako Plan Orokorren aurrerapen-dokumentua aurkeztu dute kultur etxean. Udalaren web orrialdean kontsultatu ahaliko da urriaren 31ra arte. Alegazioak jartzeko epea ere egun horretan bukatuko da; Udal Erregistroan edo telematikoki aurkez daitezke

Txintxarri

Lasarte-Orian indarrean dauden Arau Subsidiarioak -2005eko martxoaren 8tik- HAPO plan bihurtzeko prozesuak aurrera darrai. Beste saio ireki bat egin dute kultur etxean, aurrerapen-dokumentua aurkezteko eta bertaratu diren herritarren ekarpenak jasotzeko. Horiekin txosten bat landuko dute gero. Bertaratu ezin izan zuten pertsonak telematikoki iradokizunak egiteko aukera izango dutela zehaztu dute aurkezpen horretan. Horrez gain, alegazioak aurkezteko epea ere zabalik dago, urriaren 31ra arte,

larunbata. Udal Erregistroan edo telematikoki aurkeztu ahaliko dituzte lasarte-oriatarrek.

Datozen 15 urteetarako

HAPO planak zehaztuko du datozen 15 urteetarako udal-plangintza orokorra nola izango den, zein herri-ereduren alde egingo den eta nola garatuko den. Aurrerapen-dokumentu horretan hainbat alternatiba jaso dituzte, eta herritarrei aukera ematen ari zaie ekarpenak egiteko. 0 fasea da honako hau.

Beste saio ireki bat egingo dute urriaren 22an, ostegunarekin,

kultur etxean, 18:00etan. HAPO plana idazterakoan hartu beharreko irizpide orokorreki buruz eztabaidatuko dute.

Saio irekiez gain, tailer telematikoki ere prestatu dituzte. Irailaren 22an, 24an eta 29an eta urriaren 1ean egingo dituzte, 18:00etan hasita, Jitsi Meet aplikazioaren bitartez, ondoko helbide honetan: <https://meet.jit.si/lasarte-oria-hapo>. Izena emateko formularioa Lasarte-Oriako Udalaren web orrialdean topa daiteke, <https://www.lasarte-oria.eus/eu/-/hiri-antolamendurako-plan-orokorra> helbidean.



NEURE KABUZ

ASIER ODRIOZOLA

Itxialdia

Garai batean auzi baten inguruko protestan egiten ziren itxialdiak. Gogoan ditut ur botila hutsak protagonista izan zituenekoak, esaterako. Itxialdiak beste kutsu bat hartu du ordea azken hilabete hauetan. Hasteko, ez da norberaren hautua, adituek eta agintariak ezarritako neurria baizik, eta agindutako beste edozer bezala aldapa gorako gertatzen da halako zer bait.

Gainera, orain itxialdi "kirurjikoak" ari dira gertatzen, hau da, ez da gizarte osoa etxeratuta dagoena, familia bat, ikastolako gela bat, edo eta lagun talde txiki bat. Zer esan nahi dut horrekin? Ba, mundu osoa itxaldian dagoela jakiteak halako animo sozial bat eragiten duela, komunitate uste bat. Aldiz, norbera bakarrik dagoenean etxe barruko paretak gutxi batzuren mugapean isolatuta, nekezagoa egiten da egoera, leihotik edo terrazatik gainerako lasarteak kalean ikusten dituzulako bizitza normala egiten, azkenaldikoa, bizitza normaltzat jo badaiteke behintzat. Psikologia kontua da, noski.

Martxotik aurrerako isolamendu globala berritasuna izan zen, aurretik ezagutu gabekoa eta bere txarrean, magikoa nahi baduzue. Oraingo itxialdiek ez dute batere xarmarik, zin dagizuet. Berriz ere kalean garen honetan, bigarren isolamenduaren ondorioak dira orain protagonista: inorekin geratzerakoan distantziaren konszientzia, elkar ikutzearen apuroa eta halakoak. Zergatik? Bigarren itxialdian egon garenok ez dugulako berriz ere kalera irtetzeko aukerarik galdu nahi. Ez da zekentasuna, autodefentsa da.

Lasarte-Orian 32 positibo erregistratu dituzte azken astean

Irailako joera ez da aldatu eta kutsatzeak atzematen jarraitzen dute herrian: azkeneko astean, 32 -irailaren 10etik 16ra arteko datuak kontsultatu ditu Txintxarri-k, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren txostenak irakurrita-. Azken egunetan, dena den, erritmoa apaldu egin da apur bat hilabete hasierarekin alderatuta: irailaren 9tik hamar kasu baino gutxiago detektatu dituzte egunero. Irailaren 16an hiru positibo berri erregistratu

dituzte Lasarte-Orian. Beterri-Buruntza eskualdeko beste hiru udalerritan ere eman dute kutsatze gehiagoren berri: hamabi Hernanin; bi Usurbilen; eta beste bat Astigarragan.

EAEko hiru erkidegoetan gora egin dute kutsatzeak irailaren 16ko datuen arabera. 579 positibo erregistratu dituzte hiru lurralde historikoetan, horietatik 188 Gipuzkoan. Bezperan baino PCR proba gehiago egin dituzte, 11.125 guztira. 320 paziente daude ospitaleetan ingresatuta, horietatik 55 ZIU Zainketa Intentsiboko Unitateetan. R0 tasa 0,87koa izan da irailaren 16an.



Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkideen artean!

Haurrekin ESKULANAK egiteko gida + 3 CD (The Uski's + Labrit + Oinkari Dantza Taldea)

Parte hartu nahi baduzu, eman izena IRAILAREN 27a baino lehen: harpidetza@ttakun.eus helbidean 943 37 14 48 zenbakira deituta eta 646. 82 44 66 (whatsapp)

Parte hartu nahi baduzu, eman izena IRAILAREN 27a baino lehen: harpidetza@ttakun.eus helbidean 943 37 14 48 zenbakira deituta eta 646. 82 44 66 (whatsapp)

Parte hartu nahi baduzu, eman izena IRAILAREN 27a baino lehen: harpidetza@ttakun.eus helbidean 943 37 14 48 zenbakira deituta eta 646. 82 44 66 (whatsapp)









IKASTURTE BERRIA AZALA BERRITUA

MAITE

ESTETIKA ARETOA

Ehunen birsortzea eta giharren indartzea tratamendu bakarrean

Uisfin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria



Ikasle talde bat, irakaslearen jarraibideak entzuten lehen eskola egunean. TXINTXARRI

DBH 3-4 eta Batxilergoko ikasleak ere hasi dira

Modu mailakatuan jarraitzen dute ikasleek klaseetara bueltatzen: DBH 3-4, Batxilergo eta Lanbide Heziketakoak itzuli dira asteon. Oriarte Larrekoetxeok, aurreikusi baino egun bat beranduago, hezkuntza greba tarteko. Herriko beste ikastetxeetan ere jarraipena izan du

Txintxarri

Ikasleek kurtso berria hasten segitzen dute, pixkanaka-pixkanaka. Aste honetan DBH 3-4 eta Batxilergokoak itzuli dira, eta Lanbide Heziketa egingo duten zenbait ikasle ere bai. Datorren astean hasiko dira gainerakoak.

Oriarte Larrekoetxe eraikinean ikasten dute DBH 3-4 eta Batxilergoko ikasleak. Aurkezpen eguna irailaren 15a zen berez, asteartea, baina egun horretako hezkuntza greba deialdia zela eta, hasiera egun bat atzeratzea erabaki zuen zuzendaritzak, eta asteazkenean ekitea. Segurutasun-

neurriak hartuta, maila bakoitza txandaka sartu zen zegokion ikasgelara. Horren aurretik, atarian tenperatura hartu zieten.

Greba hezkuntzan

ELA, LAB, CCOO, UGT eta Steilas sindikatuek grebara deitu zuten asteartean, irailak 15. Deialdiarekin bat egin zuten garbiketa, garraio eta jantokietako langile azpikontratatuak. Deitzaileen arabera, lan egin zezaketen beharginen %70ak jarraitu zuen; Hezkuntza Sailak, aldiz, adierazi zuen ikastetxe publikoetako irakasleen %41,9k egin zuela greba.

Lasarte-Oriako ikastetxeetan jarraipen desberdina izan zuen hezkuntzako grebak. Landaberri-Garaikoetxean irakasle eta ikasle gehienek bat egin zuten deialdiarekin. Zerbitzu minimoak eskaini zituzten. Irakasleen %28ak egin zuen greba asteartean eta ikasle "oso gutxi" joan ziren Sasoeta-Zumaburu ikastetxearen eraikinetara. Zumaburur jangela zerbitzua mantendu zuten baina Sasoetan ez, langileek bat egin zutelako deialdiarekin. Oriarte Landaberri zein Larrekoetxen jarraipen altua izan zuen lanuzteak irakasle eta ikasleen artean.

Hiribusa dohainik eta bigarren eskuko azoka datorren astean

Beste urte batzuetan baino egitarau murriztagoarekin, Europako Mugikortasun Astean parte hartuko du udalak

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak Europako Mugikortasun Astean parte hartuko du aurten ere, nahiz eta jarduera gutxiagoko egitaraua osatu duen, COVID-19ak eragindako egoeratik. Irailaren 22a, asteartea, autorik gabeko eguna izango da, eta, horregatik, Muittu Manttangorri hiribusa dohainik hartu ahalko dute lasarte-oriatarrek egun osoan zehar.

Irailaren 25ean, ostiralez, bigarren eskuko ibilgailuen azoka egingo dute udalak eta Artelatzen enpresak. Bizikletak eta patineteak jarriko dituzte salgai. Azokaren aforoa "uneoro" zainduko dute, herritarrei bisita-txandak emanaz 15:00etatik aurrera. Bestalde, nahitaezkoa izango da maskara jantzita eramatea.



2018ko azoka. TXINTXARRI

Aurrez hitzordua hartu beharko dute parte hartu nahi dutenek, 943 67 02 49 telefono zenbakira deituta. "Herritarrek aukera paregabea dute bizikleta eta patineteak prezio ezin hobean erosteko", azpimarratu dute antolatzaileek. Saltzen ez dena jabeek itzuliko zaie egun berean.



TXINTXARRI

Lanak Kalbario Bidean

Lasarte-Oriako Udalak hala eskatuta, Iberdrola enpresak Kalbario Bidean dauden zenbait kutxatila konponduko ditu; hondoratuta daude eta bere sarekoak dira. Lanak gaur hasiko dira, irailak 18, ostirala, eta ondo bidean datorren asteko astelehenean bukatuko dira, irailak 21. Errepideko trafikoa semaforo mugikor bidez kontrolatuko da.

Irailaren 21era arte izena eman daiteke Kukuka eskolan

Ikasturte berria "ilusio handiz" prestatzen ari da Kukuka antzerki eta dantza eskola. Ohar bidez jakinarazi duenez, beraiekin ikasteko interesa dutenek irailaren 21era arte izena eman ahalko dute, astelehenez. Sartu behar dute www.kukuka.eus

web orrialdera eta bertan topatuko duten formularioa bete.

COVID-19ak eragindako egoera tarteko, Kukukak jakinarazi du aldaketak egiten ari dela lan egiteko moduan, 2020-2021 ikasturtera begira. Aurreratu du aurten hilabetez hilabete kobratuko dutela matrikula. Informazio gehiago 655 84 73 45 telefonoan eta kukuka@kukuka.eus helbide elektronikoan.

Salaketa grafiko bat

Oriarte BHlko hainbat irakasle ikasgela bateko mahaietan eseri dira, metroa eskuetan, erakusteko ezinezkoa dela ikasleen artean metro eta erdiko tartea mantentzea: "50 zentimetroko tartea bermatu dezakegu, ahotik ahora metro bat". Sare sozialetan kanpaina bat abiatu dute, [#etxekolanakegingabe](https://www.facebook.com/etxekolanakegingabe) traolarekin, ikastetxeren bat horrela lanean ari bada egoera erakus dezan.



Oriarte BHlko bi irakasle, lehen planoan, metroa eskuetan. ORIARTE BHI

Izena eman lasarte-Orian!

2020-2021 ikasturtea

*Herriko Gida Komertziala sarean ikus dezakezu
www.txintxarri.eus/gida*



Haurren garapena



Euskaltegia

Zure seme-alaben garapenerako laguntza integrala

Logopedia, osteopatia eta psikomotrizitatea



Noelia Calero
OSTEOPATIA • FISIOTERAPIA

Osteopatia:
688 815 089



Psikomotrizitatea:
617 294 582



Logopedia:
639 925 551

eman izena!



Muntteri AEK euskaltegia
Geltoki kalea 17, behea, 20160 Lasarte-Oria
• 607 62 52 33 • lasarte@aek.eus
www.muntteri.blogspot.com

Muntteri AEK euskaltegia

EUSKARA-IKASTAROAK

MATRIKULAZIOA ZABALIK

- Maila guztiak: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
- Aurrez aurreko eskolak.
- Autoikaskuntza.
- "On-line" aukera.



Joskintza



Akademiak

EUSKAL JANTZI TRADIZIONALAK

Egiten ikasteko bi ikastaro egingo dira Urrian eta Azaroan, astearte eta ostegunetan 15.30etik 17.30era,

Prezioa hilabeteka:
Ttakuneko bazkideak 22€,
Iez bazkideak 25€.

Izena emateko:
Ttakun Elkartearen (Gelioki, 4)
943 37 14 48 edo 695 78 53 89
kultura@ttakun.eus

zitek zientzi eskola

- ZIENTZIAK
- HIZKUNTZAK
- BANAKAKO ZEIN TALDEKO KLASEAK
- AURREZ AURREKO SAIOAK EDO ONLINE

Tel: 943363106

Goikale 12, behea LASARTE-ORIA
www.zitek-akademia.com
info@zitek-akademia.com

*Datorren
asteko gidan
zure eskola
hemen azaltzea
nahi baduzu
orain duzu
aukera!*

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:

943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66 | publizitatea@ttakun.eus

Hurrengo IKASTURTE GIDA irailaren 25ean kaleratuko dugu



Moriako migratzaile eta errefuxiatuen kanpamentuan sutea izan da iraila hasieran. Argazkian, suak kiskalitako kanpamentuaren zati bat. MIREN BARDAJI

MIREN BARDAJI MAIZA GREZIAKO LESBOS UHARTEAN ERREFUXIATUEKIN LANEAN Moriako errefuxiatuen kanpamentuan hilabeteko egonaldia egiteko asmoz joan zen, duela urtebete, Greziara. Etengabe gertatzen ari den Giza Eskubideen urraketa salatu du

Maddi Zaldua

Moriako kanpamentuko milaka migratzaile eta errefuxiatuen testuinguruan lanean diharduen gobernuz kanpoko erakunde batekin boluntario lanetan jarduteko iritsi zen Miren Bardaji (Lasarte-Oria, 1992) Greziako Lesbos uhartera 2019ko abuztuan. Irailerako aurreikusia zuen etxerako itzulera lehen hilabetea bertan pasa ostean, baina urrira atzeratzea erabaki zuen gero. Iazko urrian, ordea, ez zen jaioterrira itzuli, eta gaur-gaurkoz, ez dago Lasarte-Orian. Urtebete pasa da Moriako kanpamentura iritsi zenetik eta bertan jarraitzen du, bizitza duin baten alde borrokan ari diren migratzaile eta errefuxiatuekin lanean, eta, momentuz behintzat, ez du epe laburrean etxera bueltatzeko asmorik agertu.

Errefuxiatuentzako kirol jarduerak antolatzen dituen gobernuz kanpoko erakunde batekin joan zen Greziara, eta yoga saioak zuzentzearekin batera, emakumeak kirolaren

munduan murgildu eta ahalduzko saioak eskainiz eta koordinatuz aritu da buru-belarri.

Lan horiek alde batera utzi gabe, kanpamentuan bazterketa egoeran dauden pertsona migratzaile edo errefuxiatuei akonpainamendu psikosoziala eta laguntza zuzenago bat emateko asmoz, Kairos taldea sortu du lankide eta Moriako kanpamentuetan bizi diren emakume talde batekin elkarlanean, eta komunitate lan horrekin ere hasiak ziren. Baina, martxoaz geroztik, aldatu dira gauzak mundu osoan, eta Moriako kanpamentuan eta Bardajiren eguneroko zereginetan ere bai. Koronabirusak aldaketak eragin ditu Lesbosen errefuxiatuen kanpamentuan,

GIZA ESKUBIDEEN ETENGABEKO URRAKETA GERTATZEN ARI DELA SALATU DU BARDAJIK

baina, hobekuntzarik ekarri ez, eta are gehiago okertu du Greziako uharteran harrapatuta dauden migratzaile eta errefuxiatuen egoera.

Bardaji Moriara iritsi zenean, 10.000 migratzaile eta errefuxiatu zeuden kanpamentuan, baina horiek guztiak, 3.000 pertsona hartu zitzakeen espazio batean "pilatuta". Urtebete pasa eta gero, 21.000 pertsona elkartera iritsi direla jakinarazi du lasarte-oriatarrek: "COVID-19a agertzearekin batera, zenbait pertsona eraman dituzte kontinentera, eta, orain, 13.000 pertsona inguru daude kanpamentuan, baina 21.000 izatera iritsi dira".

Pandemia iritsi aurreko egoera "jasangaitza" bazen, are latzagoa bihurtu da geroztik. "Birusa iritsi aurretik bizi baldintzak penagarriak ziren, baina gutxienez kanpamentutik irteteko aukera bazuten, Mitilina [Lesbosen hiriburua]

adibidez, eta gaur egun, berriz, aukera txiki eta apur horiek desagertu egin dira guztiz".

Birusaren etorrerarekin "kezka handia" izan dutela azpimarratu du lasarte-oriatarrek: "Kanpamentuan, 3.000 pertsonentzako edukiera duen espazio batean zazpi aldiz pertsona gehiago egonda, ezinezkoa da birusari aurre egiteko beharrezkoa



MIREN BARDAJI

neurriak hartzea: "Jende pilaketa saihestezina da gainpopulazioagatik eta bizi diren txabolengertutasunagatik. Janari edo komun eta duxetara joateko ilara luzeak egin behar dituzte eta higiene baldintza minimorik ez da bermatzen kanpamentuan. Ur-puntu nahikorik ez dago, eta askotan ez dute ur-emaririk. Zaborra ere nonahi pilatzen da.

Koronabirusa iritsi zenetik, Lesbosen, eta zehazki Morian lanean ari diren Gobernu Kanpoko Erakunde guztiek salaketa bera egin dute: migratzaile eta errefuxiatuak kanpamentutik transferitzeko erregua egin diote Europar Batasunari, baina ez dute kanpamentuan batutako pertsona

guztiak eremu horretan ixtea beste erantzunik jaso. Hori izan da erabakia; migratzaile eta errefuxiatuak kanpamentuan, denak elkarrekin itxita utzi dituzte hilabete luze, eta neurri horiekin are gogorragoak bihurtu dira kanpamentuko pertsonen egunerokoa.

Maiatza amaitzearekin batera, Europak koronabirusagatik ordura arte itxita zituen herrialdeen arteko mugak ireki, eta, turismoa mugitzen hasten da; Grezian ere bai. Lesbos uhartera turistentzako ireki zuten arren, migratzaile eta errefuxiatuak itxita mantentzeko erabakiari eutsi dio gobernuak. Martxoaren 22az geroztik, konfinamendua gaurdaino luzatuz joan da. "Turistak zirkulazio askean ibili diren bitartean, errefuxiatuak kanpamentuan itxita jarraitu dute, bizi baldintzan penagarrietan".

Hori gutxi ez eta kanpamendua itxita mantentzearekin batera, poliziaren presentzia eta kontrolak nabarmen handitu dituzte, Bardajik jakinarazi duenez.

Tentsioa nabaritzen hasten da Abuztuan, ordea, lehen COVID-19 kasua agertu zen Morian, eta,



Moriako kanpamentua isteko eskaera, edifizio baten goikaldean. MIREN BARDAJI

berriro ere, gobernuak hartutako neurri bakarra konfinamendua bermatzeko polizien kontrolak oraindik gehiago indartzea izanda: "Gobernuz Kanpoko Erakundeokiko kontrolak ere handitu egin zituzten eta, horrek, erakundeon eta migratzaile eta errefuxiatuen arteko harremanak asko zaildu ditu".

Lehen kasua agertu eta berehala, testak egiten hasi zirela azaldu du Bardajik: "Testak egin eta informazio gehiegirik eman gabe, emaitza positibo eta sintomak zituzten pertsonak euren dendatik atera eta isolamendu gunera eramaten hasi ziren. Kanpamentua sortu zenean, bertako eskola izateko sortu zuten egurrezko txaboletara bideratzen dituzten pertsona horiek, baina, hor ere, beharrezko eta gutxieneko baldintzak errespetatu gabe, eta, tentsioak gora egin eta lehertu egin da egoera. "Giza-eskubideen etengabeko urraketak ematen diren egoera sostengaitz eta tentso horretan, irailaren 9an sute bat piztu zen Morian". Oso gogoan du Bardajik arratsalde hura: "Iluntzean hasi zen sutea,

eta suhiltzaileen erreakzioa ez zen ez berehalakoa ezta eraginkorra izan. Eguraldi beroa zegoen, izugarrizko haizea ari zuen eta berehala zabaldu zen sua eta kanpamentuaren zati bat erabat erre zen". Gaineratu du ez zela inolako antolaketa izan kanpamentuko pertsonak ebakutzeko, eta migratzaileen eta errefuxiatuen protesten aurrean negarra eragiteko gasa jaurtitzen hasi zela polizia. "Errefuxiatuek ahal izan zuten moduan alde egin zuten kanpamentutik eta poliziek errepidea blokeatzeko erabakia hartu zuten, hiriburura iritsi ez zitezen". Irailaren 10ean, bigarren sute bat piztu, eta bezperako sutetik salbatutako kanpamentu zatia erre zen. Horrela, erabat suntsituta geratu da Moria, eta sei hilabeteko salbuespen egoera ezarri dute, eta asilo-eskatzaille eta errefuxiatuak poliziak alde banatan blokeatuta duen errepide zati batean aurkitzen dira: kalean.

Errepidean, askatasun eske

Hilabete luzez kanpamentu batean sartuta egon ostean,

Lesbos uhartetik irten eta kontinentera joateko eskariak eta herrialdeen arteko mugen irekieren aldarrikapenek etenik izan ez duen arren, Greziako gobernuak beste kanpamentu bat eraiki du. 500 denda zuriz betetako lur sail batean sartu nahi dituzte errepidean batutako migratzaile eta errefuxiatuak. "3.000 pertsonentzako eremua berrantolatu dute, eta, dagoeneko, emakumeak eta haurrak bideratu dituzte bertara. Gure emakume taldeko neska bat dago kanpamentu berri horretan, eta hark esana da, ez dutela komunik, ez dutxarrik eta egunean behin, bazkalorduan, ematen dietela janaria".

Hortaz, suteak kanpamentua suntsitu eta irlatik irteteko aukera izan zitekeenaren ustea, uste hutsean geratu da. Gaur-gaurkoz, Greziako gobernuak ez du migratzaile eta errefuxiatuak uhartetik ateratzeko asmorik agertu, eta kanpamentuan dauden pertsonak irtenbiderik gabe jarraitzen dute. Bardajik ezin du gertatzen ari dena sinetsi: "Sinesgaitza da XXI. mendeko Europan hau gertatzen aritea; Giza eskubideak etengabe urratzen ari dira eta ezin dugu onartu bigarren Moria bat eraikitzea, ez hemen eta ez inon".

Asilo politiko eskaerak, etenda

Orain urtebete, Bardaji Lesbosera iritsi zenean, asilo politikoaren zain zeuden errefuxiatu askok gaur egun zain jarraitzen dute. "Prozesu oso luzeak izan daitezke; badago, iaiztik kanpamentuan dagoen errefuxiatuak, asiloa lortzeko elkarrizketarako hitzordua datorren urterako duena".

Baina, ziurrenik, gehiago luzatu daitezke aurreikusitako epe horiek. Koronabirusak eragindako egoera dela eta, asilo politikoak kudeatzen dituzten erakundeon jarduna etenda egon baita denbora luzez: "Errefuxiatu askoren asilo politiko eskatzeko prozesua etenda geratu da, eta horrek ere eragin du egoeraren leherketarekin; ezin dute gehiago".

Orain arteko zereginak alboratu, eta eguneroko beharrei erantzuteko lanetan murgildu dira Lesbosera joandako Gobernuz Kanpoko Erakunde guztiak, tartean lasarte-oriatarrena ere bai. Betiko zereginak alde batera utzi –yoga,

kirol eta jarraipen psikosozialeko saioak–, eta errefuxiatuentzako premiazko produktuak banatzeko lanetan ari dira etengabe. "Kairos taldeak, beste erakunde eta lagunekin elkarlanean, errepidean pilatuta dauden pertsonentzako premiazko produktu higienikoen banaketan dihardu". Sutearen ostean, ezer gutxi berreskuratu ahal izan dute, eta eurek baino hobe ez dakigu inork zein behar dituzten. Produktu higienikoak eskatzen dizkiete, eta horiek banatzeko lanetan ari dira azken asteotan.

Laguntza hori guztia lortu eta kudeatzeak ordea, gastu ekonomiko handia eskatzen du, eta kanpoko laguntzarik gabe, hori guztia euren gain hartzea ezinezkoa zatekeen. Horregatik,

Beste behin, elkartasun olatua iritsi da Euskal Herritik Moriara. Bardajik aitortu duenez, jende asko jarri da berarekin harremanetan produktuen bilketak martxan jarri eta bildutakoa hara bidaltzeko asmoa agertuz, baina, gaur-gaurkoz, ez da aukera eraginkorra: "Kanpamentuko beharrek berehalako erantzunak behar dituzte, eta bilketa horiek egin eta produktuak hona iristeko, gutxienez, hilabete bat beharko genuke".

Zenbait herritar ere lanean ari dira Bardajiren taldea babestu eta laguntza emateko.

Herritarrek ere laguntzeko prest

Inklusioaren eta elkartasunaren aldeko elkarte ezberdinetan



Moriako kanpamentua kiskailita, errepidean pilatu dira errefuxiatuak. MIREN BARDAJI

Kairos proiektu berria martxan jartzearekin batera, crowdfunding kanpaina bat abiatu zuten. Horren bitartez, ekarpena ekonomikoa egin nahi duen orok dirua bidal diezaieke errefuxiatuentzako materiala erosi eta banatzeko. "Orain arte, martxan jarri ditugun proiektuak aurrera eramateko ere erabili ditugu dirua, baina, irailaren 9az geroztik eta larrialdi egoera amaitu bitartean jasotzen ari garen guztia higiene produktuak erosi eta banatzera zuzenduko dugu".

Hau da diru bilketan bere aletxo jarri nahi duenarentzat crowdfunding helbidea: https://es.gofundme.com/f/kairos-supporteam-lesvos?utm_medium=referral&utm_source=gofundme.com&utm_campaign=comms_krzm+kairos-supporteam-lesvos crowdfunding.

lanean ari diren hainbat lasarte-oriatarrek bat egin dute Bardajiren Kairos proiektuarekin, eta elkartasun osoz, euren aletxo jartzeko ahaleginetan ari dira orain. Elkartu eta taldetxo bat sortu dute hiru helbururekin. Lehenik, Lesbosen gertatzen ari dena gizarteratzea, bigarrenik, Bardajik martxan jarritako Kairos proiektua babestu eta laguntzea, eta, hirugarrenik eta azkenik, taldetxo horretan elkartu diren herritarrek lan egiten duten elkarteak aurkeztu eta ezagutaraztea. Horretarako, egitasmo bat martxan jartzen ari dira, baina horrekin lanean ari dira oraindik, eta datozen asteetan emango dute horren berri.

Lasarte-Oriatik, Greziara, elkartasunak oraingoan ere ez du hutsik egin.



Kanpamentu berri bat eraiki du Greziako gobernuak. MIREN BARDAJI

"Entzuleen iritziak jasotzeko irrikaz gaude"

MIKEL YARZA ARTOLA HILOTZ TALDEKO KIDEA

Black, Death eta Trash metal estiloak oinarri, eta bide berriak urratuta, Hilotzek *Aske* izeneko diskoa kaleratu du. Mikel Yarza Artola herritarra da taldeko abeslaria eta baxu-jotzailea

Itziar Gonzalez Sarobe

Irailaren 15ean kaleratu du Hilotz metal taldeak bere bigarren iraupen luzeko lana, *Aske*, "enpatia ariketa bat" taldekideen esanetan, aske izan nahi duten protagonista desberdinen larruan jarri eta istorio bana kontatzeko ariketa, 11 abestitan gorpuztua. Fisikoki Elkar dendetan salgai jarriko dute, eta taldearen web orrialdean -www.hilotz.com- ere erosi ahalko da, eta oso-osorik entzun. Taldeko abeslari eta baxu-jotzaile den Mikel Yarza Artola lasarte-oriatarrarekin elkartu da TXINTXARRI, Hilotzen proiektu honi buruz gehiago jakiteko.

Aste honetan kaleratu duzue 'Aske', zuen bigarren iraupen luzeko lana, irailaren 15ean.

Oso pozik gaude. Bidea luzea izan da; kanta berriak sortzen hasi ginenetik hiru urte pasa dira. Egia da tarte luzea izan dela baina kontentua gaude, diskoko alor eta xehetasun guztiak zaintzeko behar izan dugun denbora hartu dugulako. Orain, entzuleen iritziak jasotzeko irrikaz gaude.

2017. urtean hasi zen disko berri bat sortzearen prozesua, beraz.

Bai, 2017ko udan hasi ginen. Bukatu egin zen *Giza Ankerkeria* diskoaren zikloa, nahikoa kontzertu eman genituelako lan hori aurkezteko. Horrez gain, uda hori baino hilabete batzuk lehenago *Hil ala bizi* maketaren bosgarren urteurreneko kontzertu berezia egin genuen, taldekide

ohiekin elkartuta. Oso berezia izan zen. Ziklo bat itxi genuela sentitu genuen orduan, eta berriari ekin genion. Luzatu egin dira aurreikusitako epeak, baina pozik gaude emaitza kalean dagoelako. **'Giza ankerkeria' diskoaren ildo jarraituz, 'Aske'-n ere Black, Thrash eta Death metal estiloak uztartu dituzue, baina esan izan duzue oraingo honetan bide berriak ere urratu dituzuela. Zeintzuk?**

Estilo nahasketa horri segida eman diogu, baina aberastu ere bai: inoiz baino muturrekoagoak diren zatiak lotu ditugu inoiz baino lasaiagoak direnekin.

Metala egiten dugu, baina saiatzen gara mugarik ez jartzen, nahasketak aberasten eta guretzat inspirazio-iturri izan daitezkeen estiloak barneratzen. Pablo Cabases gitarjoleari, esate baterako, asko gustatzen zaizkio erritmo latinoak, saltsa... Horiek ere entzun daitezke *Aske*-n.

11 abestiko diskoa ondu duzue. Lehen begi-kolpean, ikusi daiteke konposaketak luzeagoak direla.

Bai, badaude abesti luzeagoak, zortzi minutukoren bat ere bai, beste batzuk motzagoak dira, baina ez da izan propio bilatutako zerbait. Gure sormen prozesuaren emaitza izan da. Kantu batzuk era naturalagoan sortu ditugu, berezkoagoak izan dira, eta beste batzuei buelta dezente gehiago eman dizkiegu, aldaketak egin, amaitzeko unea iritsi zela sentitu arte. Gure barruak eskatzen digun

hori garatzen dugu kantetan, luzeagoak zein motzagoak izan. **Zeintzuk atera zaizkizue naturalago? Eta zein abestirekin pasa duzue denbora gehiago?**

Auhen eta *Izua su* kantuekin orduak eta orduak igaro ditugu; hasierako konposaketari buelta bat gehiago eman diogu. Aldiz, naturalago, errazago atera dira *Pertsona, terrorista* edo *Sinisten dut*, esate baterako.

Disko hau konposatzerakoan bi mutur horiek antzeman ditugu, batzuei besteei baino buelta gehiago eman dizkiegu, abestia borobildu dugula sentitu arte. **'Pertsona, terrorista' abestia aipatu duzu. Hori izan zen aurreratu zenuten lehen kantua. Nolako harrera izan du zaleen artean?**

Harrera ona sumatu dugu zaleen artean. Abesti horrek biltzen ditu Hilotzen estiloaren ezaugarri ugari. Estiloak nahasten ditu; kanta zuzena da eta errepika indartsua dauka, kontzertuetan burua astintzeko modukoa; eta letretan mezu indartsuak daude, pertsona migratzaile baten begietatik kontatzen baitugu istorioa, zeinen zaila den beraientzat bidean topatzen dituzten hainbat muga gainditzea. Gai horrekin sentibilizatuta dauden pertsonak ere harrera beroa egin diote kantuari.

'Aske' osatzen duten abestiak entzunda, letretan gogoeta egiteko akuilu eta gai ugari topatuko dituzte ikus-entzuleek. Izen hori bera dauka

diskoko lehen abestiak, eta hauxe abesten duzu: 'Benetakoa ote da gure zoriontasuna?'

11 istorio kontatzen ditugu askatasunaren inguruan, 11 istorio propio eta indibidual, aske izan nahi duten pertsona horien begietatik kontatuta.

Aske kantua abiapuntu orokor eta kontzeptualago bat dela esango nuke, gizarteko okerren inguruan gogoeta egiteko sortua, abesti erreflexiboago bat, galdetzen duena ea benetan aske ote garen, gizarteko kode zehatz batzuen arabera jaio eta gure bizimodua horien arabera garatu dugunean.

Dena den, ez dugu bilatu soilik entzuleek hausnartzea; sentitzea ere nahi dugu. Pentsatzea eta gogoeta egitea interesgarria da, noski, baina sentitzea ere bai. Gure musikak sentimenduak transmititzea ere nahi dugu, nire ustez unean-unean sentitzen duzun hori bideratzen laguntzen dizulako musikak. Eta hori gehiago dator sentitzetik, gogoeta egitetik baino. **'Aske' diskoko 11 abestietatik bi, azken biak, instrumentalak dira: 'Betirako atsedena' eta 'Agur'.**

Hasieran, abesti bakarra ziren. *Betirako atsedena/Agur* izena jarri nahi genion. Gainera, uste genuen biribilagoa zela hamar abestiko disko bat egitea, baina gero interesgarria iruditu zitzaigun *Agur* kantuari ikusgarritasun gehiago ematea eta konposizioa bi abestitan zatitzea. Aurrekuaren metal bertsio bat da *Agur*.

Aipatzen duzun hori, 'Agur', izan da diskoa kaleratu aurretik aurreratu

"TARTE LUZEA IZAN DA, BAINA DISKOA ZAINTEKO BEHAR IZAN DUGUN DENBORA HARTU DUGU"

"METALA EGITEN DUGU, BAINA SAIATZEN GARA MUGARIK EZ JARTZEN"

"EZ DUGU BILATU SOILIK ENTZULEEK HAUSNARTZEA; SENTITZEA ERE NAHI DUGU"

duzuen beste kantuetako bat. Sare sozialetan eta zenbait hedabideetan bolo-bolo ibili da azken asteetan.

Aurreku tradizionalaren doinuak metal estilora egokitu ditugu, bideoklip kontzeptual batekin lagundu, dantza tradizional eta modernoak uztartuz. Ongi-etorri beroa egin diote eta balio izan du, egun batzuetarako baldin bada ere, etengabe lur azpian dagoen metal musika hedabide orokorren erdigunean jartzeko.

Metal taldeei ez zaie ematen espazio handiegirik hedabideetan, beraz.

Ebidentzia bat da hori. Euskal metal talde mordoa dago, baina hedabide jeneralistetan apenas daukaten oihartzunik Su Ta Gar taldeaz harago. Eta are gehiago muturreko metalaz ari garenean, kantu guturalaz-eta. Muga gaindiezin bat da hori batzuentzat, batez ere ohitura faltagatik, egunero-egunero doinu errazetara hezten baita entzumena irati komertzialetan. Hori ez da metalarekin bakarrik gertatzen, beste musika estilo askorekin ere bai.

Azken asteotan izan dugun arrakasta dator bertsio batetik, Euskal Herri osoan ezaguna den doinu bat moldatuzetik, eta ez Hilotzek %100ean sortu duen abesti batetik. Uste dut horrek erakusten duela zerbait. Garai bateko metal olatu horrek gaur egun ez dauka horrenbesteko presentziarik. Beraz, ikusten dugu *Agur* kantuak izan duen oihartzunak bi alde dituela.

Diskoaren ekoizpena bueltatuta, Ekaitz Garmendiaren Black Storm estudioetan grabatu duzue. Zer moduzko esperientzia izan da?

Plazer hutsa izan da. Bete-betean sartu gara esperientzia horretan: Karrantzako (Bizkaia) mendigune bakesu horien artean egon, lasai, %100ean musikan zentratuta, Ekaitzekin musikaz eta bestelako gaiak hausnartzen eta hitz egiten... Asko ikasi dugu berarekin, pasio bera daukagu eta asko gozatu dugu. Soinu aldetik ere oso-osozozik gaude.

Pandemiaren aurretik grabatu zenuten diskoa?

Bai. Are gehiago esango dizut: 2019ko apirilean amaitu genuen *Aske* grabatzen. Gure asmoa zen urte horretako abenduan aurkeztea, Durangoko Azokara begira, baina Ekaitzek ere hala iradokita, euskal zirkuitutik harago begiratzea erabaki genuen, eremu txikia baita hori, are gehiago metal musika egiten duten



Esker-eskuin, Hilotz taldeko hiru kideak: Pablo Cabases, Mikel Yarza eta Etxahun Urkizu. Bost urte daramatzate elkarrekin musika sortzen eta jotzen. ARITZ LARREA

taldeentzat. Europa iparraldean mugimendu handia dago eta zenbait hilabete igaro genituen gure musika aurkeztu eta diskoetxe baten bultzada bilatzen, diskoa autoekoiztetik zigilu baten babespean argitaratzera pasatzeko, eta lortu genuen, COVID-19a iritsi aurretik tratua egin baikenuen Maldito Records diskoetxe valentziarrarekin. Euskarazko taldeen lanak argitaratzen dituen zigilu bakarrenetako bat da estatu mailan.

Non eta nola erosi ahalko da 'Aske'?

Fisikoki Elkar dendetan salduko dugu. Horrez gain, gure web orrialdearen bitartez erosi ahalko da, eta entzun ere bai, plataforma digital guztietan.

Diskoaren azal ikusgarria Xabier Sagastak diseinatu du. Zer islatu nahi izan duzue?

Aurreko diskotik dator harremana, kamiseta baterako gizartearen eta naturaren arteko talka ederki islatu zituen. Oraingoan esan genion nahi genuela bera aske izatea sortzerakoan, gure diskoaren kontzeptuarekin lotuz. Izaki bat ekarri du diskora, azala askatzen

ari dena, metamorfosi moduko bat islatuz, beste xehetasun askorekin batera. Duela urte dezentetik jarraitzen dugu Xabierren lana eta uste dugu inoiz ez duela egin horrelako zerbait. Joko bat egin dugu, azal eta kontrazaleko irudiak bat dira. Barrura, berriz, Aritz Larrea argazkilaria irudi bat eraman dugu. Dimentsio artistiko handiago eman nahi izan diogu diskoari, musikatik haragoko beste alorrak gehiago zaintzen. Egoera 'normal' batean, diskoa kaleratu eta gero kontzertuak ematen hastea litzateke hurrengo urratsa. COVID-19ak goitik behera irauli du ziklo hori ere, ordea.

Maldito Records zigiluarekin tratua egin eta diskoa lotuta utzi genuenean, kontzertu batzuk programatzen hasi ginen, baina bertan behera utzi behar izan ditugu egoera ikusita.

Orain arte parentesi batean egon da hori guztia, baina berriro ekin diogu kontzertuak lotzeari. Egia da momentuz ezingo dutela izan lehen bezain bero eta indartsuak, baina hitzordu berezi batzuk prestatzen ari gara. Espero

dugu datozen hilabeteetan horiek iragarri ahal izatea.

'Aske' diskoko 11 abestiak zuzenean aurkezteko irrikaz egongo zarete.

Bai, jakina. Musikariak izateaz gain, zaleak ere bagara, ohitura handia dugu zuzenean emanaldiez ikus-entzule bezala ere gozatzeko. Faltan botatzen dugu hori dena, eta tristuraz ikusi musika eta kultura munduan zorrotasunez betetako planteamenduak egiten ari diren bitartean gizarateko beste esparru batzuetan ez direla horrenbestera, jendea gehiago pilatzen dela. Taldeak bakarrik ez, horien inguruan lan egiten duten pertsona ugari ere asko kaltetu ditu pandemiak, eta uste dut inor gutxi adierazten duela benetako kezka edo borondaterik egoera horri buelta emateko.

Ez dirudi disko bat kaleratzeko garai onenak direnik. Zuek, hala ere, urratsa egin duzue.

Azpitarratu nahi dut pozik gaudela aukeratu dugun unearekin. Gure prozesua luzarotik dator, pandemia hasi zenerako ekoiztuta geneukan eta ez gara zerotik hasi. Orain talde batek baino gehiagok pentsa dezake, 'zertarako egingo

dut orain disko bat?'. Diru-galerak, kontzertuetan behar bezala ezin lana aurkeztu...

Era berean, iruditzen zaigu gure diskoaren kontzeptua, aske izatearena, lagungarri izan daitekeela bizi dugun garai gatazkatsu honetan, denok harrapatuta bizi garen honetan. Ekarpentxo hori egin nahi genion gizarteari.

2020. urtea berezia da Hilotzentzat, hamar urte betetzen baitituzue. Hamarkada honetan zu izan zara taldearen prozesua gertutik bizi izan

"ASKE IZATEAREN KONTZEPTUA, GURE DISKOARENA, IZAN DAITEKE LAGUNGARRI GARAI HAUETAN"

"GUSTATUKO LITZAIGUKE KONTZERTUETAKO BAT ETXEAN IZATEA, LASARTE-ORIAN"

duen bakarra; sorreratik zuek bakarrik jarraitzen duzu kide izaten, Mikel.

Denbora ia ohartu gabe pasa da. Lasarte-Orian bertan sortu genuen taldea eskolako lau ikaskidek, musika estilo horrekiko zaletasunak elkartuta. Aurrekoan komentatzen genuen Hilotzen aurreneko bost urteetan beste hainbeste taldekide aldaketa gertatu zirela, eta hurrengo bostetan bakar bat ere ez [2014an sartu zen taldean Etxahun Urkizu bateria-jotzailea; Pablo Cabases gitarrista, urtebete beranduago].

Hamargarren urteurrenaren harira zerbait berezia egin nahi genuen, ospakizun kontzertu bat, bageneukan abesti propio bat egiteko ideia kolaboratzaile askorekin, baina hori guztia ere bertan behera geratu da eta bigarren plano batean dago, ez dakidalako zentzurik izango ote lukeen 2021ean prestatzeak horrelako zerbait.

Taldearen bilakaerari dagokionez, egia da hamar urtean ez ditugula lan asko kaleratu, baina talde bakoitzak bere bidea egiten du, eta mantsoagoa izan arren, uste dut inoizko bide onenean dagoela Hilotz pertsonalki zein musikalki. Zaleek Aske-ri buruz duen iritzia ezagutzeko irrikaz gaude, eta abesti guztiak eurekin zuzenean partekatzeaz.

Zuzenean emanaldi horietakoren bat Lasarte-Orian izango al da?

Hitzorduak lotzeko lanetan gabiltza, baina jakina, gustatuko litzaiguke emanaldi horietako bat etxean izatea, Lasarte-Orian. Ilusio berezia egiten digu aurkezpen duin bat prestatu eta gure musika aurkezteko.

Lehen aipatu duzu azken bost urtean taldean ez dela aldaketarik egon. Egonkortasun hori antzeman duzue atera berri duzuen disko hori sortzerakoan?

Bai. Bere ibilbidean aurrenekoz, Hilotzek ez du aldaketarik izan disko bat sortzeko prozesuan, ez sortzerakoan ezta grabatzerakoan ere. Aurreko lanetan joan-etorri horiek baldintzatu egin zuten bidea.

Aske-ren kasuan, Etxahunek, Pablok eta hirurok eraman dugu prozesuaren pisu guztia, gure diskoa da erabat, hiruona. Konposaketak ere partekatutak izan dira, bakoitzak dakar etxetik ideia edo riff multzo bat baina gero elkarrekin garatzen ditugu, elkar aberasten gara eta emaitza partekatua da, oso pozik gaude.



Lasarte-Oria Trail elkarteak prentsaurrekoan. Ezker-eskuin: R. Marcos, J. Olazagoitia, J. Iparragirre eta J.L. de la Mata. TXINTXARRI

Dena prest Mendi Festaren 2. ediziorako

"Protokolo zorrotz bat" diseinatu eta moldaketa batzuk eginda, 2. Mendi Festa antolatuko du Lasarte-Oria Trail elkarteak irailaren 27rako, igandea. Izen-emateak "eritmo onean" doazela adierazi dute antolatzaileek; inskripzioa Internet bidez egitea gomendatu dute

Iñigo Gonzalez Sarobe

"Gure ustez, aire zabalean mendiaz gozatzea sustatzen duten ekitaldiek lagundu egingo liokete herriari", adierazi dute Lasarte-Oria Trail elkarteak 2. Mendi Festaren aurkezpenean. Bilera mordoa egin eta ordu luzez hausnartu ostean, aurtengo edizioari eustea erabaki dute, baina moldaketak eginda. Esate baterako, bertan

behera utziko dute Ttipi-Ttapa martxa, heldu zein haurrei zuzendua. "Izugarrizko pena ematen digu, baina egoera ikusita, erabaki zentzudunena dela iruditzen zaigu".

Martxa luzea edo motza egin ahalko dute parte-hartzaileek. 28,5 kilometrokoa izango da luzea, eta 1.400 metroko desnibel positibo metatukoa. Hiru mendi igoko

dituzte: Andatza, Belkoain eta Buruntza. 07:30ean aterako dira distantzia horretan izena eman duten pertsonak, Okendo plazatik. 15 euro balio du inskripzioa egiteak. Martxa motza moldatu egin dute antolatzaileek. "Ibilbidea zertxobait leuntzea erabaki dugu, aldapa batzuk kenduz", azaldu dute aurkezpen prentsaurrekoan. 13,5 kilometro eta 600 metroko

desnibel positibo metatukoa izango da ibilbidea; martxalariak 09:00etan aterako dira Okendotik.

Hasiera batean 500 pertsonara arteko proba bat antolatzeko prest zeuden, baina azkenean iazko kopuru berera mugatzea erabaki dute, 300 martxalarira. Internet bidez izena ematea aholkatu du Lasarte-Oria Trailek, www.kirolprobak.com web orrialdean.

Datorren astean presentzialki izena eman ahalko dute herritarrek Manuel Lekuona Kultur Etxean eta Mercero gunean, asteazkenetik larunbatera, goiz eta arratsaldean.

Protokolo "zorrotza"

Botak, motxilak, makilak... eta maskarak ere bai. Derrigorrezkoa izango da musukoak janztea hirigumeetan eta ibilbideetan zehar egongo diren anoa postuetan, Lasarte-Oria Traileko kideek nabarmendu dutenez. Mendian ibili bitartean, ordea, ez, batez ere parte hartzaileak bakarrik badoaz edo nahikoa distantzia badago. Taldean joan eta beste multzo batekin topo eginez gero, maskara janztea gomendatu dute. "Parte-hartzaileei zentzudunak izan daitezkeen eskatzen diegu".

Segurtasun-distantziak mantentzea ere asko zainduko dute antolatzaileek. Onartu dute irteera puntuetan hori bermatzea izango dela zailena, helmugaratzea bezain mailakatua izango ez delako. Parte-hartzaile guztiei temperatura hartuko diete atera aurretik, eta, baten batek ezetz esaten badu, ez zaio irteten utziko. "37,1 gradu baino gehiago emanez gero, bizpahiru aldiz gehiago hartuko zaio temperatura pertsona horri, eta temperatura bera emanez gero, besteengandik alden du eta ez zaio parte hartzen utziko".

Gel hidroalkoholiko poteak jarriko dituzte irteera-gunean

zein anoa postuetan. Bertan jarriko dituzten jakiak ezingo dira manipulatu, eta derrigorrezkoa izango ez bada ere, eskularruak jantzi ahalko dituzte parte-hartzaileek. Proban zehar zigilatu beharreko txartela jasotzen dutenean, proba hasi aurretik, "martxa osoan zehar" erabiltzeko edalontzi bat ere emango diote antolatzaileek parte-hartzaile bakoitzari.

"Oso eskertuta gaude"

Pandemiak eragindako egoera oztopoa izan da Mendi Festa antolatzeko, baina aukera ere bai. Ekitaldiari "buelta bat" eman dio Lasarte-Oria Trailek, herriari "ahal den heinean" laguntzeko. Esate baterako, aurtun ez dituzte pintxoak eta edariak eskainiko Okendon. Horren ordez, parte-hartzaile bakoitzak txartel bat jasoko du, Lasarte-Oriako zenbait tabernatan pintxo bat jan ahal izateko. Opari eta bestelako zozketak ere egingo dituzte. "Iaz baino are gauza gehiago eskaini ahalko ditugu; ikaragarria izan da herriko komertzio eta ostalarien erantzuna, oso eskertuta gaude".

Mendi festaren aurkezpenean kamiseta urdin batzuk jantzi dituzte Lasarte-Oria Traileko kideek. Aurreratu dutenez, irailaren 27an horrelako elastiko bat emango diote parte hartzen duen pertsona bakoitzari. *Izan Iñurri* egitasmoa kideek postu bat jarriko dute Okendon egitasmoa ezagutarazi eta euren produktuak saltzeko, iaz bezala.

PARTE-HARTZAILE KOPURUA 300 PERTSONARA MUGATZEA ERABAKI DU ANTOLAKUNTZAK

Ibilbide berri eta paisaia ikusgarriak ezagutzeko liburua

Zailtasun teknikorik gabeko 45 bide zirkular batu ditu Txusma Perez Azaceta herritarrek liburua berria

Txintxarri

Txusma Perez Azaceta herritarrek *Rutas circulares fáciles* liburua argitaratu berri du. Proiektu berri hau idazten lagundu dion Sara Carte emazteak sinatu du liburua hitzurrea.

Euskal Herriko mendiak eta inguruak ezagutarazteko helburuarekin 45 ibilbide zirkular batu ditu Azacetak liburuxka berria.

Rutas circulares fáciles lanak aurkeztutako txangoak

mendizaleei zein mendian lehen pausoak ematen ari direnei zuzenduak dira. Bideek ez dute zailtasun teknikorik, edozeinek egiteko modukoak dira eta urte osoan egin daitezke. Berezitasun bat badute, ordea, ibilbideen joan eta etorrikoak ez da bide beretik egiten.

Bide ezberdinak aurkezteko aukera ezin hobea izan da hori Txusma rentzat. Cartek hitzurrean azaltzen duen moduan, "bide ezagunak ez ezik, ahaztutako bideak eta bisitari



Bikotea, ibilbide batean. T. PEREZ AZACETA

gutxi dituztenak ere ezagutzera eman nahi izan ditu".

Bide horiek guztiek, gainera, Euskal Herriko mendietako, ibarretako eta oihanetako sekretuez gozatzeko aukera ematen dute. Eredu ezberdinetako formazio geologikoak, harkaitzetan dauden gaztelu zaharrak, haitzarte ikusgarriak, zuhaitz monumentalak, gailurretako ermitak edo itsas ondoko talai eta labarrak aipatzen dira hitzurrean.

Intzako pilotariak lehia hasiko dute asteburuan

Ezker Hormako Kluben Arteko Txapelketa jokatu dute elkarteko bikoteek 2. kadete eta 2. senior mailan. Era berean, Pilota Eskolako izen-ematea ireki da. Axier Arteaga Arteaga II.ak berrogeialdia igaro behar izan du eta gaur hasiko da berriro lehia

Txintxarri

Gipuzkoako Euskal Federazioak aurreko astean eman zion hasiera txapelketen denboraldiari. Larruzko paletako lehiakideek Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketako lehen partidak jokatu zituzten. Pixkanaka gainerako mailak gehituko dira. Asteburu honetan, esate baterako, eskuz binakako lehiaketaren txanda izango da. Eta bertan izango da Intza KE.

Aurten 2. kadete mailan eta 2. senior mailan parte hartuko du Lasarte-Oriako taldeak hiru bikoterekin.

Kadete mailako Intza 2 bikotea izango da lehena pilotari eragiten. Gaur, 19:00etan, Ilunpe 3ren aurka jokatu dute gaztetxoek, Azpeitian. Intza 1 bikoteak, berriz, bihar goizean, Beotibarren jokatu dira Tolosako elkarteko bikotearen aurka.

Senior bikoteak ordea, etxean hasiko du lehia. Tartaloetxeren aurka neurtu beharko dituzte indarrak, bihar Michelin kirol guneko pilotalekuan, 16:15etik aurrera.

Kadete mailako bikoteak oraindik zehazteke badaude ere, asteburuak joan ahala maila horretako jokalariz guztiek parte hartuko dutela azpimarratu du Joxe Felix Solano elkarteko arduradunak.

Senior mailako bikotea, berriz, Jon Pello Artetxek eta Mikel Elolak osatuko dute eta Haritz Urkia eta Asier Catalina izango dira ordezkoak.

Pilota eskola

Joxe Felix Solano Intza Kirol Elkarteko arduradunak azaldu duenez, zalantzan egon dira entrenamendu eta lehiaketekin hasi edo ez. "Protokoloa egin behar izan dugu eta udala zein federazioari paper mordo bidali behar izan dizkiogu".

Hala eta guztiz ere, kirol guneko kantxan lanean hasi dira eta



Kadete mailako gaztetxoek emango diote hasiera txapelketa denboraldiari. TXINTXARRI

Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimenaren ostean, pilota eskolako izena ematea martxan dagoela adierazi du.

Pilota eskolan inskripzioa egin nahi duenak 657 770 318 zenbakira deitu edo solanojf@hotmail.com helbidera mezu bat bidali behar du.

Hasiera eguna oraindik, zehazteke, "ziurrenik urriaren leian", saioen egunak ostegun eta asteartetan izango direla zehaztu du: benjaminak 17:30etik 18:30era; alebinak 18:30etik 19:30era eta infantilak 19:30etik 20:30era.

Izena ematean eskolari eta COVID-19aren hedapenaren aurkako neurriei buruzko informazioa eskainiko die elkartek gurasoei.

Arteaga, berriro lehia

Axier Arteaga Arteaga II.a ere pilotalekura itzuliko da asteburu honetan. Baiko enpresak beste pilotari batek positibo eman ostean, Lasarte-Oriako pilotariak PCR probak egin behar izan ditu, biek emaitza negatibo izan dute, eta berrogeialdian egongo da asteartera arte.

Behartutako atsedenaldiaren ostean, asteburu lanpetua izango du Arteaga II.ak. Gaur, ostirala Lizarrako Remontival pilotalekuan Salaverri II.a lagun duela Zabala eta Untoriaren aurka lehiatuko

da. EitBn partida ikusteko aukera izango da.

Larunbatean, berriz, Urretabizkaia II.ekin bikote eginda, Egiguren V.a eta Erostarbe izango ditu aurrez aurre Hondarribiko Jostaldi pilotalekuan.

Baikori eskaera

Bestalde, Baiko enpresako pilotari gehienek, Arteaga II.ak barne, enpresari jarrera aldatzeko eskaera egin diote asteon.

Asegarce desagertu eta Baiko sortu zenetik enpresak eta batez ere, Joserra Garai zuzendari nagusiak duen jarrerarengatik ezinegona zutela eta martxoan ezarritako aldi baterako erregulazioak egoera okertu duela jakitera eman zuten. Azken hilabeteko kontratu eteteak eta enpresak pilotari horiekiko izan duen jarrerak piztu du sua.

Pilotariak eskaera zehatzak egin dituzte: Garaik jarrera aldatzea, eta enpresak azkenaldian hartutako zenbait erabaki berriro planteatzea. Horiek bete ezean, "neurri zorrotzagoak" hartu beharko dituztela aurreratu dute, hala nola mobilizazio bat egitea.

Bizitako egoerak, pilotarien babesgabatasunari buruzko hausnarketa bat eragin die eta, horregatik, pilotari profesionalen elkarteak sortuko dutela iragarri dute.



Eskola Kirolean kirol jarduerak ezberdinak egin daitezke. TXINTXARRI

Eskola Kirolak urriaren 5ean emango dio hasiera ikasturteari

Hurrengo asteetan, ikastetxeetako guraso elkartek erabiltzaileei protokoloa eta jarraibideak bidaliko dizkiete

Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiak baimena eman du 12 urtez azpiko haur eta gaztetxoek kirol ez federatua egiteko. Dena ondo bidean, urriaren 1etik aurrera Eskola Kirola jardueraz gozatu ahal dute. Lasarte-Oriako ikastetxeetako haurrek urriaren 5ean hasiko dituzte saioak.

Lasarte-Oriako Eskola Kirolaz arduratzen diren guraso elkarte eta jarduerak kudeatzen duen Ttakun Kultur elkarteak Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatutako pauso guztiak eman dituzte herriko gazte eta haurren osasun- eta segurtasun-neurriak bermatzeko.

Talde txikietan, pertsonen arteko gutxienezko segurtasun distantzia mantenduz, kontaktu fisiko gabeko jarduerak eginez... Hasiko dira

oraingoz gaztetxoak, eta egoeraren garapenaren arabera, jarduerak moldatuko dela nabarmendu dute. Urtarrilera arte infatila eta alebin mailako lehiaketarik ez dela izango ere iragarri dute antolatzaileek.

Informazioa eta izena ematea

Hurrengo asteetan, ikastetxeetako guraso elkartetako kideek jarduerak ezberdinen hasierari buruzko informazioa, protokoloa eta jarraibideak helaraziko dizkiete gurasoei. Horrez gain, protokoloa euren webgune edo sare sozialetan ere eskuragarri jarriko dute.

Eskola Kiroleko arduradunek jakitera eman dutenez, oraindik izena eman ez duten edo ekainean zalantzan egon ziren haur eta gaztetxoek irailaren 30era arte dute inskripzioa egiteko aukera.

Buruntzaldea IKTko igerilariak, ezin oraindik lanean hasi

Irailaren 28ra arte itxaron beharko dute taldeko igerilariak entrenamenduak hasteko

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko igerilariak aste honetan igerilekuan lanean hasiko zirela aurreratu bagenuen ere, igeriketa taldeko kideek gutxienez irailaren 28ra arte ezingo dutela hasi jakitera eman dute.

Federatuekin lanean hasteko arazorik ez dagoela uste du Buruntzaldea IKTk. Horretarako, Lasarte-Oriako Udaleko Kirol Zerbitzuari ordutegi eta talde antolaketa desberdinak proposatu dizkio, eskatzen zizkieten baldintzak betez. "Aurrera

pausoak ematen aritu gara", azpimarratu dute.

Kirol Zerbitzuak, ordea, igerilekuari buruzko hausnarketa egiteko epe bat hartu du, "igerilekuaren etorkizuneko antolaketa osoa birplanteatzeko eta arratsalde erdian egiten den desinfekzio tartea ezabatzea baloratzeko eta ohiko ordutegiak mantendu ahal izateko".

Ondorioz, irail bukaerara arte ezingo dira Buruntzaldea IKTko igerilariak Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekura itzuli.

Furundarena zortziko finalean lehiatu da

20 urte azpiko mailako atleta zazpigarren izan da maila absolutuko Espainiako Txapelketako jauzi hirukoitzeko proban. Urri hasieran bere mailako Espainiako Txapelketan parte hartuko du eta jauzi probetan dominak lortzea du buruan

Txintxarri

2020. urteko denboraldi berezi honetan, Espainiako 12 jauzilari onenen artean sailkatu zen Naroa Furundarena Espainiako txapelketan parte hartzeko. Larunbatean, irailaren 12an, Alcobendasen lehiatu zen gaztea jauzi hirukoitzeko proban eta zazpigarren postua eskuratu zuen.

Lehen hiru jauzietan finalean egongo zen zortziko erabakiko zen eta Furundarenak bertan egotea zuen buruan. Ez zuen txapelketa ongi hasi, 12 metrotara iristen ez zen jauzi bat eginez. Saiakera bakoitzean bere onena eman eta hirugarren jauzian finalerako txartela lortu zuen, 12,16 metro. Gerora, ordea, ezin izan zuen marka hori hobetu. Balio gabeko bi jauzi egin ostean, 12,06 metro egin zituen azken aukeran.

Urteko markarik onena izan ez arren, irakurketa positiboa egin dute Ostadar SKT atletismoko arduradunek. "20 urtez azpiko mailako atleta izanik, berriro ere, Espainiako txapelketan zazpigarren postua lortu du", adierazi du Oscar Goikoetxea prestatzaileak.

Furundarenaren erregulartasuna eta jarrera nabarmendu du eta oraindik hobetzeko duela uste du. "Oraindik alderdi batzuk hobetu



Naroa Furundarena, Espainiako txapelketan lehiatzeko prest. OSTADAR ATLETISMOA

behar ditu, baina maila honetan lehiatzeaz gozatu behar du ere".

Furundarenak urriaren lehen asteburuan Madrilen lehiatuko den 20 urtez azpiko Espainiako txapelketa du buruan. Bertan bi probetan izango da Lasarte-Oriako gaztea: luzera-jauzia eta jauzi hirukoitza. Helburua, dominak lortzea. Prestaketa modura irailaren 20an, igandearekin, Ordizian egingo diren proba libreetan parte hartuko du luzera jauziko proban.

Denboraldi berria

Maidier Rekondok eta Oihana Igarrikerekin, modu paregabea amaitu dute denboraldi berezia,

euren markak hobetuz. Irailaren 9an, Donostiako Miniestadioan antolatu ziren proba libreetako disko-jaurtiketa saioan lehiatu ziren biak. Rekondok 42,96 metroko jaurtiketa egin zuen; Igarrikerekin, berriz, 31,16 metrotakoa.

Bi atleta horiek atseden hartuko duten arren, maila federatuko gainerako kideek lanean jarraituko dute atletismoko pistan. Aste honetan, gainera, 14 urte baino gehiago dituzten eta lehiatu nahi ez duten atletak gehituko dira entrenamenduetara. Federatuak ez daudenean, ordea, urriaren hasierara arte itxaron beharko dute.

egon, baina atzean lanean egon ziren taldetxoak harrapatu nahian. Ez zen posible izan.

Haimar Etxeberriak esprina eginez seigarren postua eskuratu zuen Oñatiko helmugan; Asier Pozo hamargarren izan zen eta Beñat Carbayedak, berriz, hamahirugarren.

Asteburu honetan, juniorrek bi probatan parte hartzeko aukera izango dute: larunbatean Segurako Saria eta igandean Alegian Erlojupeko Gipuzkoako txapelketa.

Buruntzazpiko txirrindulariak kilometroak gehitzen doaz

Erlojupeko Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute asteburu honetan junior mailako txirrindulariek

Txintxarri

Oñatin lehiatu ziren aurreko asteburuan Buruntzazpi Txirrindularitza eskolako junior mailako gazteak.

Mikel Deunaren sarian 83 kilometroko lasterketari aurre

egin zioten junior mailako txirrindulariek.

Hamabosgarren kilometroan bosteko talde batek ihes egin zuen. Buruntzazpiko Txirrindularitza eskolako kideek ezin izan zuten ihesaldi horretan

Lasarte-Oria Bai! kros herrikoia eta BTT proba, bertan behera

Eusko Jaurlaritzak ezarritako neurriek lehiaketan antolaketa eta egitea baldintzatzen dute

Txintxarri

COVID-19ak baldintzatuta, aste honetan, Lasarte-Orian antolatzen diren bi proba 2021. urtera atzeratuko direla iragarri dute antolatzaileek.

Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia eta Korrika Festak urtero bezala gure herriko kaleak alaituko ez dituztela jakitera eman du Ostadar SKTk. 2020. urtea berezia izango zen gainera, Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia zilarrezko ezteiak betetzen zituen-eta.

Ostadar SKTk bi arrazoi nagusi aipatu ditu erabakia azaltzerakoan. Lehen, antolakuntzak ezin dituela bere gain hartu lasterketa antolatzeko Eusko Jaurlaritzak ezarritako baldintzak.

Bestetik, eta lehen bezain garrantzitsua dena, urteurren berezia ezingo lukeela "behar bezala" ospatu. "Kros herrikoia 25 urte betetzen ditu aurten, eta bizi dugun egoeran, ezin dugu lasterketak merezi duen ospakizun festa antolatu; ez kirol arloan, ezta arlo sozioekonomikoan ere", aipatu dute.



2019ko kroseko helmugako irudia. TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Kirol taldeak 2021. urtean Kros Herrikoia eta Korrika Festa antolatzeko konpromisoa hartu du, baita 25. urteurren ospakizunak ere.

BTTrik ere ez

BMW Lurauto BTT Lasarte-Oria probaren X. edizioa ere ez da urriaren 4an jokatu.

Parte-hartzaileen, boluntarioen eta ikusleen osasuna eta segurtasuna bermatzeko alderdi hartu dute erabakia antolatzeko eta babesleek.

Izena eman zuten pertsonen irailaren 20a baino lehen itzuliko zaie inskripzioaren zenbatekoa, kudeaketa-gastuak izan ezik, euro bat.

Lugañenek, brontzeko postua Kontxako Banderan

Donostia Arraun Lagunak eskifaiak hirugarren postua lortzeko gogor aritu behar izan zuten

Txintxarri

Aurreko igandean, irailak 13, XIII Emakumeen Kontxako Banderaren Ohorezko txandan lehiatu zen Belartietan kide duen Donostia Arraun Lagunak eskifaia, 4. katean, Orioren, Donostiarra eta Tolosaldearen aurka.

Estropadaren hasieratik bandera eskuratzeko borrokatik urrutu egon zen Donostia Arraun Lagunak, eta Tolosaldearekin bere norgehiagoka propioa izan zuen, txandan nahiz sailkapenean hirugarren postua nork lortuko. Une batzuetan lehen txanda irabazi zuen Hondarribia ere sartu zen sailkapen orokorreko goiko laukotean, bietakoren baten lekuan.

Bigarren luzean Orioren aurrera egin du eta nabarmen nagusitu da, arerioekin tartea zabaldua. Azken uneetan hurbiltzen joan zaizkio Donostiarrari atzeko bi traineruak, baina herrikideek ezin izan diete aurre hartu. Tolosaldeari bigarrena baino gutxiagoko aldea aterata, hirugarren izan dira helmugan.


Sailkapen orokorra

1. Orioren 21:59.80
2. Donostiarra 22:13.84
3. Arraun Lagunak 22:27.26
4. Tolosaldea 22:31.92
5. Hondarribia 22:40.38
6. Hibaika 22:51.72
7. Zumaia 23:03.82
8. San Juan 23:22.20

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Unax
Zorionak Unax!
Ametsetan ametsetan,
hamaika urte pasa dira...
asko maite zaitugu! Oier,
Maddi, aita eta ama.



Aiur
Zorionak, Aiur, maitia!
Dagoeneko lau urte, zein
azkar pasa diren! Asko
maite zaitugu, muxu
haundi bat zure ama, aita
eta anaiaren partetik.



Pili
Kuku! Zenbat urte
betetzen dituzu? Ai ai aiiii,
iaz baino bat gehio! Eta
maite zaitugu
horrenbeste, arraio!
Asteburuari indartsu
ekiteko, gaur
hamaiketako!
Muxu haundi bat,
Ttakuneko lankideen
partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

Internet

Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurra eta
Bidali zure zorion agurra
formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan
argitaratuko da webgunean eta
ostiralean Txintxarri paperean.


Posta elektronikoa

Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus helbidera,
eta idatzi: izen-abizenak,
urtebetetze-eguna eta nahi
duzun testua.
Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.


Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak
bakarrik iragarriko ditugu.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 18




Larunbata, 19




Igandea, 20




Astelehena, 21




Astearte, 22



Asteazkena, 23



Osteguna, 24



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 18 DE ORUE
LARUNBATA, 19 URBISTONDO
IGANDEA, 20 URBISTONDO
ASTELEHENA, 21 GANDARIAS-URIBE
ASTEARTEA, 22 URBISTONDO
AZTEAZKENA, 23 DE MIGUEL
OSTEGUNA, 24 LASA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia
eskuratzeke, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera
(www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9
43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

JAIOTAKOAK

Iraia Dominguez Recio. Irailaren 16an.
Amaia Izpura Muñoz. Irailaren 13an.
Mark Olasagasti Lopez. Irailaren 13an.
Mikel Lopez Busto. Irailaren 9an.
Daniel Lucian Deftu. Irailaren 3an.

HILDAKOAK

Juana Beloqui Olló. Irailaren 15ean.

OHARRAK

Biyak Bat elkarteko ekintzen izena ematea

Biyak Bat zahar egoitzak antolatzen dituen jardueren izena emate epe ireki du.

Yoga, zumba, gimnasia, aretoko dantzak, lerroko dantzak, sevillanak, eskulanak... bazkideek eskaintza zabala dute.

Izena eman nahi duten bazkideek astelehen eta asteazkenetan 10:30etik 12:30era gerturatu behar dira egoitzeko bulegotik.

Odol ateratzea

Lasarte-Oriako odol emaileek irailaren 28an dute hileroko hitzordua. Antonio Mercero aretoan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era odol ateratzeak egingo dituzte.

Odola eman nahi duten herritarrek aurrez izena eman behar dute 943 317 091 telefonora deituz.

Elkarteko kideek emaile ez diren herritarrek gonbidatu nahi dituzte odola ematera, odola beharrezkoa baita.

Biyak Bat elkartearen Gabonetako loteria

Biyak Bat zahar egoitzak gogorarazi du, COVID-19ak eragindako egoera dela-eta, aurtengo Gabonetako loteriaren salmenta aurreratu egingo dutela.

Datorren asteartetik aurrera erosi ahal izango da loteria. Astearte eta ostegunetan egingo dute salmenta, 13:30etik 12:30erako ordutegian.

Gogorarazi dute baita ere, azaroaren 30era arte gordeko zaiola partizipazio bana, egoitzako bazkide bakoitzari.

AZOKA TXIKIA

LANA
ESKARIA
Lan bila nabil geriatría arloan, dokumentazio guztia eguneratuta daukat eta 15 urteko esperientzia. 690 146 067

Lan bila ari naiz, asteburuetan jarduteko, orduka. 639 740 900.

Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. 630 682 716.

ETXESIZITZAK

ERRENTAN
Etxea partekatzeko neska baten bila gabiltza. Interesatuak jarri nirekin harremanetan, 666 320 520. (Nekane).

Etxea behar da lasarten bizi dan familia batentzat. 5 lagun dira senar emazte eta 3 seme alaba. Harremanetarako zenbakia, 661 39 62 99.

SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia.

Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.



NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

ZOZKETA




Urtineako lore-sortaren irabazlea!

Aitziber Berasategi izan da uztailean zozkatu genuen lore-sortaren irabazlea! Ttakun Kultur Elkarteko izena eman zuten bazkideen artean egin dugu zozketa, eta aste honetan jaso du saria. Urtinea lora-dendaren eskutik, ingurunea errespetatuz eta hozkailutik pasa gabeko lore natural eta freskoekin egindako sorta eraman du etxera. Adi irakurle! Datozen hilabeteetan www.txintxarri.eus webgunean lora-sorta gehiago zozkatuko ditugu eta.

SUDOKUA

						6	4
1		3		9			
	8	6				9	
		8		2		5	
9				4			
	7				8	1	
			5		2		
5	6	2				3	1
			1		3		7
							5

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaleak
Julene Iraola eta Uxue Odriozola,
Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Jose
Lanchas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Saretuz, IRAULTZA FEMINISTARI EKIN!

Lasarte-Oriako neska* gazteak
Irailaren 19an Oriarten

- 10:00 Ongi etorria**
- 10:30 Etorkizunera begira zer?**
- 12:00 Kamiseta eta pankarta pintaketa**
- 14:00 Tupper bazkaria eta bazkalostea**
- 17:00 Bertso saioa**
(Oihana Arana, Haizea Arana, Uxue Alkorta eta Ane Peñagarikano)
- 19:00 Hardbass**

LASARTE-ORIA Topaketa feministak

Herriko mugimendu feministak topaketak antolatu ditu larunbaterako. Goizetik hasi eta iluntzera arte, ekintza ezberdinetan parte hartzeko aukera izango da, baina COVID-19ak eragindako egoera medio, ekintza horietan parte hartzeko izena ematea ezinbestekoa izango da.

Larunbata 19, 10:00etatik aurrera, Oriarte Landaberri eraikina.

OSTIRALA 18

ZIZURKIL Bertso saioa

Iraila kulturalaren baitan, Zizurkilgo jai batzordeak bertso saioa antolatu du. Amaia Agirre, Oihana Iguaran, Unai Mendizabal eta Haritz Mujika arituko dira oholta gainean; Igotz Alkortak jarriko ditu gaiak. Sarrera doakoa izango den arren, gonbidapenak eskuratzea ezinbestekoa izango da, eta horiek, udal bulegoetan jaso behar dira, eta pertsona bakoitzeko, gehienez lau sarrera emango dituzte.

Joxe Arregi plaza, 19:30ean.

URNIETA Dantza

Egape dantza taldearen *Almanaka* ikuskizun berrienaren lagin bat ikusteko aukera izango da.

San Juan plaza, 20:00etan.

ANDOAIN Musika

Anari musika taldeak *Epilogo bat* diskako kantuen emanaldia eskainiko du. Ekitaldi horretarako sarrera doakoa izango da, baina gonbidapena eskuratzea ezinbestekoa. Bastero

Kulturguneko leihatilan hartu ahal izango dira gonbidapen horiek, kontzertua hasi baino bi ordu lehenago.
Ondarreta ikastetxea, 22:00etan.

LARUNBATA 19

LASARTE-ORIA Jardunaldia

Lasarte-Oriako neska gazteen jardunaldiak egingo dituzte:

10:00etan, Ongi etorria.

10:30ean, *Etorkizunari begira zer?*

12:00etan, Kamiseta eta pankarta pintaketa.

14:00etan, Tupper bazkaria eta bazkalostea.

17:00etan, Bertso saioa, Oihana Arana, Haizea Arana, Uxue Alkorta eta Ane Peñagarikanorekin.

19:00etan, Hardbass.

Oriarte, 10:00etatik aurrera.

URNIETA Mendi irteera

Gipuzkoako Parketxe Sareak irteera antolatu du Mulisko gainara. Dolmenak, Cromlechak, zilegimediak, saroiak, zuhaitz lepuak ezagutzeko aukera izango dute irteeran parte hartzen dutenek. Besabitik abiatuko da irteera.

Besabi, 10:00etan.

IGANDEA 20

AMASA-VILLABONA Dantza

Dantzaz konpainiak *Basoa* izeneko ikuskizuna eskainiko du Villabonako Errebote plazan eta sarrera doakoa da.

Errebote plaza, 13:00etan.

ANDOAIN Antzerkia

Ganso & Cia konpainiak *Babo Royal* ikuskizuna eskainiko du lau urtetik gorako haurrentzat. Sarrera doakoa izango da, baina gonbidapena eskuratzea ezinbestekoa. Horretarako, Bastero Kulturguneko leihatilara gerturatu beharko da, emanaldia hasi baino bi ordu lehenago.

Ondarreta ikastetxea, 18:30ean.

AMASA-VILLABONA Antzerkia

Perigallo Teatroaren eskutik, *La mudanza* antzezlana ikusteko aukera izango da. Gaztelaniaz izango da obra eta sarrerak 8 eurotan erosi ahal izango dira aldeztatik, eta 10 eurotan, berri, egunean bertan.

Argazki lehiaketan bozkatzeko azken egunak

Hauek dira TXINTXARRI aldizkarian antolatu dugun udako argazkien lehiaketara aurkeztutako irudiak. Igandera arte duzuela bozka emateko aukera!



Sartu www.txintxarri.eus/lehiaketa atarira bozka emateko!

Zer dira ariguneak?
Euskaraz lasai aritzeko guneak
Lanean, kirolean, taldean...

Non eratu daitezke?
Enpresan, elkarteetan, erakundeetan ...
Izan litezke kanpo edo barne ariguneak

Kanpo ariguneak
Herritarrekin harremanak euskaraz
Barne ariguneak
Egitura barruan euskara taldeetan

EUSKARALDIA LASARTE-ORIA

#ARIGUNEAK 3 PAUSOTAN
Euskaraldia azaroaren 20tik abenduaren 4ra

Entitateen izen ematea irailaren 27a arte

Udaleko euskara-zerbitzuan 943 37 61 84 edo Ttakun Kultur Elkartearen 943 37 14 48

Emaiozu buelta bat zure munduari euskararekin 2020-21

IBILBIDEAK

AGENTZIAK

BALDINTZAK

ONDO iBili!

BEKA %85_a
matrikularen arte

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatetakoak.
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

Udaleko euskaltegia
Munteri-AEK euskaltegia

- Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean.
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikastaro hauetakoren bat egina izatea:
 - 1- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
 - 2- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
 - 3- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)
- Gutxienez % 85eko asistentzia eta gutxienerako aprobetxamendua gainditua.

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.

LASARTE-ORIA
UDALA - ARGITAMENDU